



Giro ederra inauterietan

Jai erraldoia asteburuan Lasarte-Oriak bizitakoa
Larunbatean, San Ferminak, igandean Euskal Inauteriak

Irurriko jai giroa bizi zen larunbatean Lasarte-Oriako kaleetan. San Ferminak eta bertako protagonita ugarietaz mozturrotuta atera ziren herritar ugari. Zezenak, korrikalariak, turistak... ez zen inor

falta izan.

Eta igandean, Euskal Inauteriak ospatu ziren herrian. Goiz eta arratsaldean giro bikaina bizi izan zen eta gainera, eguraldia lagun izan zen asteburu osoan zehar. /4-5-8 orrialdeetan

Irazokiren aktuzio bikaina

Joseba Irazoki pop, folk musika egiten duen artistadugu eta ostiralean bere musikaz gozatzeko aukera egon zen Manuel Lekuona kultur etxeko kafetegian.

Kitarra berriarekin hurbildu zen herrira Irazoki, eta bere abesti bilduma bildutakoen aurrean eskaini egin zituen.

Xpressionk Zirkuitoaren barruan kokatutako kontzertua izan genuen, hurrengo martxoaren 25ean izango da Ruben Arrosperiden eskutik. •



Pop eta Folk-a uzatzen dituen musika entzuteko aukera izan zen ostiralean kultur etxeko kafetegian.

GIZARTEA /3

Haur eta nerabei buruzko hitzaldi zikloa astezkean hasiko da

GIZARTEA /6

Martxoaren 8an, Emakumearen eguna ospatzeko ekitaldi ugari

KULTURA /8

Inauteriei amaiera ederra eman zitzaion Euskal Inauterietan



ALBA

ARROPA DENDA



DENDA BERRIA

Nagusia 65 behea • Lasarte-Oria • Tel.:943 574450



Estatuko txapelketarako gutxiengo markak lortu ditu Iñigo Ibarburuk

Buruntzaldea Igeriketa taldeko gazteek gutxiengo marka gehiago lortzea espero dute

Leioan lehengo igandean, otsailaren 27an, "denbora hartze proba" izan zuten Buruntzaldea Igeriketa taldeko gazteek.

Borja Apeztegia entrenatzaileak azaldu digunez, "arratsalde borobila izan zen".

Izan ere, Iñigo Ibarburuk gazteak Espainiako bi gutxiengo marka eskuratu zituen, 100 libre proban eta 100 tximeleta proban.

"Benetan denbora ikusgarriak lortu ditu Iñigok," adierazi du Buruntzaldea Igeriketa taldeko entrenatzaileak.

Marka hauek lortu ondoren Ibarburu martxoaren 18, 19 eta 20an Sabadellen ospatuko den Espainiako Infantilen Neguko Txapelketan izango da.

Iñigoz gain, taldeko beste hiru igerilarik parte hartu zuten proba honetan.

Garazi Alkorta eta Jone Vazquez-ek 400 m. libre proban Euskadiko gutxiengo marka lortu zuten

Itsaso Tolosak 200 eta 100 bizkar probetan hartu zuen parte eta 200 m.-tako bere marka berdindu zuen.

100 bizkar proban, berriz, benetako aldaketa eman zuela jakin arazi digu Apeztegia entrenatzaileak, Espainiako gutxiengo markara asko gerturatu.

Gauzak honela, asteburu honetan, Garazi, Jone, Unai Kevin, Iñigo, Itsaso eta Mikel Arribillaga Euskadiko txapelketan lehiatu dira.



Buruntzaldea Igeriketa taldeko txikiak, benjamin eta alebin mailakoak ere primeran dabilta. Arg: Buruntzaldea Igeriketa taldea

Honetan Estatuko txapelketarako gutxiengo marka gehiago eskuratzeko aukera zutela jakin arazi zigun, Borja Apeztegia entrenatzaileak.

Zenbaki honen edizioa amaitu baino lehen ezin izan dugu txapelketako emaitzarik lortu.

Txikiak ere primeran

Bestalde, igeriketa taldeko txikienek, lehengo larunbatean, Kirol Zehaztasun ligako 3. jardunaldia izan zuten Hernanin "garaipen askorekin eta markak hobetuz".

Borja Apeztegia entrenatzaileak azaldu digunez, Irati Arzallus, Izadi Billaron, Nerea Garcia, Iker Chaves, Alex Urbano eta Eneko Otero benjaminen "50 metro bular proban parte hartu zuten lan polita eginaz".

Maila bereko 100 metro bular proban, "nagusitasun osoz jokaturako serie gutzietan Buruntzaldeako igerilariak izan ziren lehen postuetan agintzen".

Nesketa Nahia Jie-k "erakustaldia eman zuen. Nesketako sailkapen orokorrean

irabazteaz gain, Gipuzkoako markarik onena lortuz. Mutilek ere ezin izan zuten Nahia-ren marka hobetu," jakin arazi du.

"Oso gertu" amaitu zuten proba taldeko Leire Carcedo, Amaia Izagirre, Erika Rodriguez, Nora Irazusta eta Ene-rizt Buizak.

Mutiletan, Jon Soto lehen postuagatik borrokatzen ibilizen eta "marka bikaina" lortu zuen. Bere taldekideak diren Ibon Etxarrik eta Argoitz Tardiok ere "proba oso ona" egin zuten.

Azkenik, 6x25 metro tximeleta erreleboan parte hartu zuten Jon Soto, Nora Irazusta, Nahia Jie Villamediana, Leire Carcedo, Ibon Etxarri eta Argoitz Tardiok.

"Lehen metroetatik probaren agintea hartu zuten eta txapeldunak izan ziren nagusitasun osoz. Azkar igeri egiteaz gain, tximeleta estilo dotorea erakutsi zuten," aipatu du.

Era berean, alebin mailako igerilariak ere lan ona egin zutela aipatu du Apeztegiak.

50 metrotako "proba azkarrean" parte hartu zuten Maialen Casado eta Janire Berasartek.

Mutiletan berriz, Beñat Alkorta eta Iñaki Etxebestek "oso proba polita egin zuten, estilo dotorearekin txukun igeri eginaz".

Honetaz gain, 200 metro bular proba "gogorrean" parte hartu zuten Maialen Casado, Janire Berasarte eta Beñat Alkorta.

"Oso proba txukunak egin zituzten eta azken metroetara indarrak atera zituzten," aipatu du entrenatzaileak.

Proba honetan, gainera, Mikel Sotok garaipena lortu zuen. "Lehen 100 metroetan, indarrak ondo gorde zituen eta bigarren ehunekoan erakustaldia eman zuen. Progresiboki erritmoa azkartuz, probaren agintea hartu eta proba lehen postuan amaitu zuen," azaldu du taldeko entrenatzaileak. •

Gomazko pilotako pala txapelketa hasi zen asteburuan



Arg: Txema Valles

Larunbateko partidak gaurko atzeratu dira inauterien jai erraldoiaren ondorioz.

Ostadar Kirol Fundazioak antolatzen duen gomazko pilotako pala txapelketa hasi da.

Igandean, lehenengo jardunaldia jokatu zuten bi bikotek. Larunbateko partidak gaurko atzeratu zituzten. Aurtengoa txapelketako VII. edizioa da eta, antolatzaileek adierazi digutenez, zazpi izango dira txapela eskuratu nahi duten bikoteak. Horien artean, zazpi alditan txapelketan nagusi izan diren Iñigo Arluziaga eta Oskar Lazcano. Ea nork kentzen dien txapela. •

Kiroletako oharrak

Buruntz Azpi elkarteak ehiza txapelketa

Buruntz Azpi elkarteak, martxoaren 12an, larunbatean, elkarteak ehiza txapelketa antolatuko du Buruntza mendiko larretan. Aurreko urteetan bezala, txapelketaren ostean, indarrak berreskuratzeko bazkaria egongo da.

Txapelketan parte hartzeko, elkartearen izena eman behar dute interesatuek martxoaren 9a, asteazkena baino lehen.

Eskola kiroleko topaketak

Eskola Kiroleko benjamin mailako atletismoko topaketa martxoaren 5ean aurreikusita bazegoen ere, 12an izango da, 10:30etatik 12:00etara Michelingo kirol guneko atletismo pistan. Gaztetxoek 10:15ean egon behar dute bertan. Honen inguruko informazio gehiago helaraziko zaie parte hartzaileei.

XXIII. Squash txapelketa soziala

Lasarte-Oriako Kirolen Udal Zerbitzuak hogeita hirugarren Squash txapelketa soziala antolatu du. Parte hartzaileek gutxienez 14 urte izan behar dute. Txapelketan parte hartzeko asmoa dutenek martxoaren 11 artekoko epea dute Kiroldegiko kafetegian izena emateko. Inskripzioaren prezioa Buruntzaldeko bazkideentzat 10 eurokoa da.

Haur eta nerabeei buruzko hitzaldi zikloa

Pilar Seminarioren "Gurasook ere behar dugu laguntza" izango da zikloaren lehen hitzaldia

Seme-alaben hezkuntza eta haien hazkuntza fisikoa, nahiz emozionala dira gurasoen lehentasunetako bat.

Horregatik, Lasarte-Oriako Udalaren Sanitate, Kontsumoko, Merkataritzako eta Ingurumeneko Departamentuak aurreko urteetan bezala, 7 urte arteko haurren gurasoei eta hezitzaileei zuzenduriko urte osoko hitzaldi zikloa antolatu du.

Baina aurten berrikuntza batekin, hitzaldi hauetan nerabeen gaia ere landuko da.

Ohi bezala, hitzaldiak psikologia eta hezkuntza adituek eskainiko dituzte. Pilar Seminario izango da hauen adibide bat, eta aurtengo zikloari hasiera emango diona.

Hitzorduak Lasarte-Oriako Manuel Lekuona Kultur Etxeko hitzaldi aretoan izango dira, eta orduari dagokionez, arratsaldeko 18:00etan.

Hitzaldiak

Zortzi hitzaldi izango ditu orotara haur eta nerabeen guraso eta hezitzaileentzako antolatu diren hitzaldien sortak.

Lehenengo hitzaldia asteazkenean izango da, hau da, martxoaren 16an. Pilar Seminario psikologo eta andereñoaren eskutik "Gurasook ere behar dugu laguntza" gaia jorratuko da.



Pilar Seminario psikologa eta maistra izango da aurtengo haur eta nerabeei buruzko hitzaldii zikloari hasiera emango dion aditua.

Hurrengoa, apirilaren 12an, antolatu da eta Fermin Korkotegi adituaren eskutik iritsiko zaigu "Jostatuz ikastea" gaia.

Maiatzaren 18an, asteazkenean berriro Pilar Seminarioren txanda izango da, baina oraingo honetan "Semeak/alabak ez dit obeditzen" izango du hitzaldiaren gaia.

Meskal Ros aditua izango

da udako oporren etenaldia baino lehen azken hitzaldia emango duena, hau ekainaren 2an izango da eta "Nerabeen aurpegiak" izango du gai hizlariak.

Udako oporrak

Bi hilabete geroago jarraipena emango zaio hitzaldi sortari eta oraingo honetan, ekainean amaiera eman zion Meskal Ros izango dugu

berriro kultur etxean. Irailaren 27an, asteartean "Nerabearen espazioak" gaia landuko du.

Urriaren 6an, Josune Martirenaren eskutik "Haurrak, posible ote da eskatzen zaie-na lortzea, zigorrik eta mehatxurik gabe?" gaia landuko du.

Pilar Seminariok berriro ere saioa izango du azaroaren 16an, oraingoan, "Lotarako ordua da" hitzaldiarekin.

Eta aurtengo hitzaldi zikloari amaiera emateko Josune Martirena izango dugu hizlari azaroaren 30an, "Nire aita etxe batean eta nire ama beste etxe batean bizi dira" hitzaldiarekin.

Gogoratu hitzaldi hauek guztiak Manuel Lekuona kultur etxeo hitzaldi aretoan izango dutela leku eta arratsaldeko 18:00etan hasiko direla. •

Lasarte-Oria VS. Azpeitia bertso desafioa

Lasarte-Oriako bertsolariak Gipuzkoako txapelketarako prestatzen jarraitzen dute eta hilabete honetan Azpeitiko Bertso Eskolari bota diote desafioa.

Zabaletako auzoko lagunak izango dira orain bertsoaz gozatzeko dutenak. Izan ere, Antonio Blas Plazako garajearen neuruko dituzte indarrak martxoaren 11n, ostiralean. Afariaren ostean desfiorako txanda izango da, gaueko 22:30ak aldera.

Lehenengo desafioa Zarautzen kontra izan zen, bigarrenena Gabiriaren aurka eta oraingoan Azpeitiarrak izango dituzte lehiakide.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa jokatuko den urtea da 2011 hau. Ehundik gora lagun izena emateko aurre-



Zarautzarren kontra lehiatu ziren lehenengo bertso desafioan lasarteoriarrak.

kuspena dago, eta kopuru handi horrek txapelketaren ohiko egitura zabaltzea eragingo du. Azken fasea udazkenean jokatuko da, baina aurretik, udaberrian, galbahe funtzioa izango duten herri-

ko kanporaketak jokatuko dira.

Honekin guztiarekin, jendaurrean aritzeko aukera bat eman eta bertso jaialdi dotorea egitea dute helburu antolatzailerek eta bertsolariak. •

OINATZ TALDEA

Lasarte-Oriako mugak ezagutzen

Lasarte-Oria herri bezala eratu zenetik 25. urteurrenarekin bat eginez, Oinatz taldeak gure herriko bazterrak ezagutzeko aukera eskaini nahi die herritarrei.

Horretarako, martxoaren 13an, igandean, mugarriz-mugarri doan ibilbidea osatu dute Lasarte-Oriako mugak hurbiletik ezagutzeko, Brigitarren komentua, Zumaburun zegoen irla, Plazao-lako trena, etab.

Goizeko 09:00etan emango zaio hasiera Lasarte-Oriaren mugak ezagutzeko aitzakiaz Oinatz taldeak antolatu duen mendia martxari. Goizeko irteera izango da eta eguerdi aldera etxera buelta egingo da.

Lasarte-Oriak zilarrezko ezteiak bete dituen urte honetan herriaren historia ere ezagutu dadin martxa polita antolatu dute Oinatz taldeko lagunek. Horregatik, herritar guztiak gonbidatu nahi ditu taldeak irteeran parte hartu eta herriko historia ezagutzera. •

UDALA

Obrak eta Hirigintza saila Ganbo kalean

Lasarte-Oriako Udalak gogora arazten du, Obrak eta Hirigintza sailaren bulegoak Ganbo Kaleko 1. zenbakian dagoen Udal Euskaltegi zaharrera tokialdatu direla, behin-behinean, harik eta "Udaletxea eraberritzeko eta handitzeko" obrak amaitzen diren arte. •



Amona, ehizaria eta Txanogorribuen laguna egin zen osasoa inauterietan.



Kokomuxukoko zerenak ere etorri zirent!



Mexikak, ere etorri ziren banderako inauterietan, gozazent!



Berri pozik berri alai Peñak goizeak ibili zen festan.



Ekeztako hippiak dantza saio ederak egin zuztuzten.



Kuadrilategiko gazteek batukada egin zuten.



San Ferminek lagun ugari gonbidatu zituen: Marijita, Zeledón...



Indiak ere herrira etorri ziren inauterietan pastzera.



Zabalena Auzolanelo kaleak nekiz zuten desfile batera.



Emakumen Zentro Zibikoek koreografi polita eskaini zuten.



Giro bikaina jarri zuten herririo kaleetan zehar; bai goibata arratsaldian ere Guerdri batzargako musikariak!

Giro ezinhobe inauterietan

■ Egurditik hasita luze jo zuten aurtengo inauteriek. Jendez gainezka egon zen Sagardotegi plazan San Ferminetako txupinazoaren zain

TXUPINAZOARI

Jendea jai giroz iritsi zen Sagardotegi Kalera larunbatean. 12:00etan eman zituzten hasiera aurtengo inauteriei, Txupinazoarekin Lasarte-Oriako San Ferminei eman zituzten pasoa.

Berri pozik berri alai Peñak, ko lidetako bota zuten txupina San Ferminean laguntzarekin eta Gora inauterietan esan ostean, pintxo-poteoari ekin zituzten plazan bildutakoekin. Tabernaz taberna herriko kaleak zeharkatu zituzten batzuek markatutako errikoarri jarrizuz, Arriekalifetan egindako txorizoi, Etxezar-



Berri pozik berri alai Peñako lidetako bota zuten txupina.



Lasarte tabernakok gai terriko kamara aukeratu zuten...



Lasarte eta Obelisk tabernak ere, dekoratzen animatu ziren. Zuzabe honetan beste tabernaren bat ere ikusiko da, ezin denak saratu...



Pintxo poteora galko zuzpi tabernak animatu zirent!



Sustrai eta Obelisk tabernak ere, dekoratzen animatu ziren. Zuzabe honetan beste tabernaren bat ere ikusiko da, ezin denak saratu...



Zakill Westminster-eko kideei aurteak gerra pikka bat eman zien...



Amalur taldekoek kalejira inbiltzaz gain, erromen bikaina eskaini zuten.

Martxoaren 8an, Emakumearen Eguna

■ Emakumearen Zentro Zibikoak egitarau zabala antolatu du ■ Berrerabilpenari buruzko tailerra, zinema eta hitzaldia, gaur ■ Ostiralean antzerkia eta herriko emakumeen afaria

Martxoaren 8an Emakumearen Eguna ospatzen da mundu guztian, generoen arteko berdintasuna aldarrikatzeko eta historian zehar horren alde egin duten emakumeak omentzeko, bereziki desberdintasunaren ondorioak sufritu dituztenak. Lasarte-Oriako Zentro Zibikoan egitarau zabala antolatu dute: bihar arratsaldean zinema eta emakume langilearen bizitzari buruzko hitzaldia; ostiralean antzerkia Kultur Etxean eta afaria Araetan. Joan nahi duten emakumeek izena Zentro Zibikoan eman beharko dute.

Emakumeen eskubideen aldeko borroka ez da berria. Aurreko mende hasieratik dator eta urtero euren eguna ospatzen dute martxoaren 8arekin batera mundu osoko emakumeek. Lasarte-Oriako egitarau berezia antolatu du Emakumearen Zentro Zibikoak.

Urtero antolatzen dute goizean emakumeentzat tailerren bat, iaz murala egin zuten lan eskaintzetan gizon eta emakumeen artean izaten diren desberdintasunak salatuzko, eta aurten birziklapen tailer bi egingo dituzte, eguraldi ona baldin bada Brigitarren komentu aurreko plazan eta eguraldi txarra baldin bada Zentro Zibikoaren egoitzan. Bihar, goizeko 10:00 eta 12:00ak bitartean, sormen birziklapen tailerra deitu dioten ekimena burutuko da, diru-zorro eta poltsak egingo dituzte birziklatutako materialak erabiliz, besteak beste, aldiakari zaharretako papera, kristalezko poteen tapa edota plastikozko botilak.

Nahi duten emakumeek parte hartu dezakete helburu gisa birziklapenaren garrantziaz jabetzea duen tailer honetan.

Bihar arratsalderako, bestalde, Zentro Zibikoan zinema eta hitzaldia antolatu dituzte. Batetik arratsaldeko 17:00etan Gracia Kerejeta,

Hernaniko Elias Kerejeta produktorearen alabaren "Siete mesas de billar francés" filma eskainiko da. Filmak emakumearen egoera eta lan munduko egitura ezberdinetan esku hartzeko aukerak jorratzen ditu.

Emakume indartsua

Zuzendaria emakumezkoa da eta hain juxtu Gracia Querejetak aspalditik erakutsi du bere filmetan sozialki interesgarriak diren gaiei heltzeko trebetasuna. Zentro Zibikoan emango den dramak 2007ko Donostiako zinemaldian gidoi onenari saria jaso zuen. Emakume protagonistak hainbat zailtasuni egin beharko die aurre, eta trabak gainditzeko emakumeek duten indarra erakusten du.

Ondoren, arratsaldeko 18:30ean Nagore Vazquez psikologoak hitzaldia emango du emakumeek lanean dituzten arazo eta gizonen arteko erabileren oraindik dituzten desberdintasunei buruz.

Nagore Vazquez berak aurreratu digunez, lan munduan oraindik dauden desberdintasunak izango dira hitzaldiaren oinarria: "Gauzak asko aldatu dira azken 40 urteotan, orain emakumeak lan egiteko askoz aukera gehiago daukate, hezkuntzan ere asko hobetu da, emakumeak ondo prestatuak gaude,



luz, mural baten bidez salatu zituzten emakumezkoen eta gizonen arteko desberdintasunak.

baina oraindik badira desberdintasunak, kasu batzuetan soldadatan, rol sexistek ere irauten dute, eta batez ere dedikazioan dago aldea, hau da, lanari eta bizitzako beste zeregin batzuei, esate baterako etxeko lanei, emakume eta gizonen arteko eskaintzen dioten denboran desberdintasun handiak dira". Hori guztia krisi garai honetan kokatuta, hitzaldi interesgarria izango da.

Nagore Vazquez-ek 2004tik hainbat ikastaro eman ditu Zentro Zibikoan, besteak beste, barreterapia edota emakumeen auto-estimaren inguruan eta tarteka hitzaldiak ere ematen ditu.

Bestalde, ostiralean hilaren 11n Emakumearen Eguneko egitarauko beste bi ekitaldi burutuko dira. Batetik

Helduen Hezkuntza Iraunkorren taldeak Agatha Christieren "La Ratona" antzerki lana eskainiko du arratsaldeko 19:30ean Manuel Lekuona Kultur Etxean.

Afaria Araetan

Urtero bezala, afari herrikoia-ekin emango diote Lasarte-Oriako emakumeek bukaera martxoaren 8a dela eta antolatutako egitarauari. Araeta jatetxean egingo den afaria herriko emakume guztiak daude gonbidatuta, 24 euro balio du eta izena Zentro Zibikoan eman beharko da.

Bihar, asteartean, manifestazioa egingo da bestalde arratsaldeko 19:30ean Donostiako Boulevardetik abiatuta, patriarkatuaren aurka eta emakumeen borrokaren alde. Emakumeen aho-

tsa aldarrikatuko dute, emakumeentzat lanpostu duinak, lan eta ondasun banaketa, eta oro har emakumeen askatasunari eta eskubideei errespetua.

Emakumeen eskubideen aldeko borroka aurreko mendeakoa da eta aspalditik gogoratzen da martxoaren 8an mundu osoan.

1908an piztu omen zen metxa. Orduan 146 emakume langile hil ziren erreta New York-eko tela fabrika batean: Lan baldintza kaxkarren eta soldata baxuen aurka egiteko fabrika barruan sartu eta itxi ziren eta ateratzeari uko egin ziotenean suzko bonbak bota zizkieten nagusiek. Esan bezala 146 emakume hil ziren eta ordutik mundu osoan ospatzen da bihar aldarrikapen eguna. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

ATZEGI, 50. URTEURRENA erakusketa ikusgai. Kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

Asteartea, 8

Emakumeen eguna

SORMENKO BIRZIKLAPEN TALERRA egingo da. Birziklatutako materialarekin poltsak eta diru-zorroak egingo dira. Egunaldi txararekin, Zentro Zibikoan egingo da tailerra. Centro UR, sormeneko birziklapena-k eskainiko du tailerra. Brigitarren komentuan, 10:00etatik 12:00etara.

Emakumeen eguna

Gracia Querejetaren "SIETE MESAS DE BILLAR FRANCÉS" filma eskainiko da. Emakumeen Zentro Zibikoan, 17:00etan.



Emakumeen eguna

EMAKUMEEN BIZITZA LABORALARI buruz arituko da Nagore Vazquez psikoterapeuta. Zentro Zibikoan, 18:30ean.

Ostirala, 11

Emakumeen eguna

EPAko antzerki taldeak Agatha Christie-re "LA RATONERA" lana eskainiko du. Sarrera, 2 euro. Manuel Lekuona kultu-



Zine sozialaren zazpigarren edizioa gaur hasiko da

YO, TAMBIEN FILMA eskainiko dute Danok Kidek antolatutako VII. Zinema Sozialaren barruan. Ondoren Adimen urritasunari buruz arituko da Gureak taldeko kide bat.

Martxoan zehar, astelehenero eskainiko dira filmak eta ondoren dagokion gaiari buruz mintzatuko dira.

GAUR, ASTELEHENA 7
KULTURETXEAN 17:30EAN

retxean, 19:30ean.

Emakumeen eguna

AFARI HERRIKOIA antolatu dute eguna ospatzeko eta herriko emakume guztiei dago eskainia. Afariaren prezioa, 24 eurokoa da eta izena Zentro Zibikoan eman behar da. Araeta jatetxean, 21:30ean.

Igandea, 13

Zinea

EL PEQUEÑO REY MACIUS hau-

rentzako filma ikusgai. Sarrera, 3, 30 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, GAZTELANIAZ.



Astelehena, 14

Zine soziala

AGUA CON SAL filma eskainiko da Danok Kidek antolatutako VII. Zinema Sozialaren barruan. Ondoren Inmigrarioari buruz arituko da Esperanza Latina elkarteak. Kulturetxean, 17:30ean.

Asteazkena, 16

Hitzaldia

Haur eta nerabeen guraso eta

hezitzaileentzako hitzaldien zikloan, "GURASOOK ERE BEHAR DUGU LAGUNTZA" Pilar Seminarioren eskutik. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan.

Osteguna, 17

Zinea

EXIT THROUGH THE GIFT SHOP filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera: 4,20 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30ean.



Ostirala, 18

Antzerkia

KING KONG-EN NESKA antzezlanari Josune Monzon aktorearen eskutik. Jalgi kafe-antzikian, 22:30ean. EUSKARAZ

Igandea, 20

Zinea

ZIGORTZAILEAK haurrentzako filma ikusgai. Sarrera, 3, 30 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, EUSKARAZ.



Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00
eta 16:00 - 21:00

Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa

Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:00etara

Oharrak

Sorgin Dantza

Ttakun kultur elkarteak 25. urteurreneko Sorgin Dantza saioan parte hartu zutenei jakin arazten die, Udalak ospakizunetan parte hartu dutenei eman dizkien orogarrak, boligrafoa eta giltzatak, Ttakunen egoitzan, Geltoki kalea 4 daudela

Eskolako estutxe bat galdu da

Eskolako estutxe bat galdu da, granatea, Kutxatik Euskotreneko geltokiaren bidean. Estutxearen barruan ahots grabagailu bat, 2 pendrive eta giltza bat zeuden besteak beste. Itzultzea sarituko da.

Harremanetarako telefonoa: 667 680 498 / 667 315 879 (Izaro, M^a Angeles).

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, zilarrezko kolgantea, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, hiru bizikleta, lau erloju, urrezko pulsera, eraztun bat, hiru diru zorro, gerriko poltsa, manikura kutxatilla, neskaren eskumuturrekoa bat, bi zilarrezko pulsera, haur zamarra bat eta larruzko zamarra bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Inauterietako argazkiak

Txintxarritik zera jakin arazi nahi dugu, eskutan duzuen papereko edizio honek dituen mugak izanda, aldizkariko web atarian, www.txintxarri.info orrian alegia, izango dituzuela inauterietako argazki ugari ikusgai eta eskuragarri.

Ikastetxeetako ospakizunak, San Ferminetakoak, desfile bateratuarenak, kaleko

giroa eta herritarrak moztortuta, tabernak dekoratuta, Euskal Inauterietakoak... denak topatuko dituzue gaur eguerditik aurrera.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).



San Fermin jaietako hainbat pasarte irudikatu zituzten Landaberri ikastetxeko gaztetxoek. Argazkian, txupinazoa.



Sasoeta-Zumaburu ikastetxean, Agenda 21aren barruan dagoen Uraren gaiaren inguruan mozorro ziren.

Asteburu luzeko inauteriak

Mozorro ugari ikastoletan

Ostegunean hasi ziren inauteriak Lasarte-Orian Musika Eskolak eskaini zuen kontzertuarekin. Ostiralean berriz, ikastetxeen txanda izan zen, larunbatean egun handia desfile erraldoiarekin eta igandean, inauteriei amaiera eman zitzaien Euskal Inauterien jai alaiarekin.

Ostiral arratsaldean herriko ikastolak inauterien magia busti eta festa erraldoian murgildu ziren. Kontent ikusi genituen euren mozorroekin ikastolako haurrak, irakasleak, zein gurasoak ere. Inauterien festaz gozatzeko aukera izan zuten ostirala arratsaldean, gainera eguraldia lagun zutela.

Euskal Inauteriak

Igandean, 2011ko inauteriei amaiera emateko urtero bezala Euskal Inauteriak ospatu ziren. Jende ugari bildu zen goiz goizetik.

Goizean eta arratsaldean, bi txandatan herriko kaleak alaitu zituzten musika eta dantzekin. Larunbatean bezala, ateri, eta eguzkia lagun zutela igaro zuten eguna.

Ohiturari jarraituz, hartza ere erre zuten, Okendo plazako lanak medio, Kale Nagusian izan zen aurtengoan ere.

Eta honekin aurtengo inauteriei eta Momo Jainkoari, inauterien iragarleari agur esan ziztaion. Urte bete itxaron beharko dugu berriro ere herriaren izaera asteburu batez aldatzeko. •



Herriar ugari bildu ziren goizean Euskal Inauterien konpartsa ikusteko, gainera eguraldiak lagundu zuen bizi zen giro ederrean.



Inauteriei amaiera emateko atzo ere, urtero bezala, hartza erre zuten.



Herriar asko atera ziren Euskal Inauterietan dantzatzeko, beste askok aldiz, espaloian ikuskizun politaz disfrutatu zuten.